

Neurriari neurria hartzen

Metroa, kiloa eta halako neurri bateratzaileak iritsi arte, tokian tokiko neurriak erabili izan dira **◉ 46-47**



‘Alakrana’-ko marinela askatu dituzte piratek, eta etzi ailegatuko dira etxera

Zapaterok berak baieztatu du albistea: «Onik daude eta libre ari dira nabigatzen». Bahisariaren inguruan, ordea, ez du deus esan. Hainbat iturriren arabera, 2,3 milioi ordaindu dira

«Herriaren laguntzarik gabe ezinezkoa izango litzateke gaurko eguna ospatzea», adierazi dute marinelen senideek, eta eskerrak eman dizkiete «gertuko instituzioei» **◉ 2-5**



Argi Galbarriatu, Iker Galbarriatu Alakrana-ko kapitainaren arreba, eta Xabier Legarreta, Bermeoko alkatea, bahiketaren egunak adierazten zuen kartela kentzen, atzo. L. JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

Joseba Agudo Espainiaratzea onartu du Paueko auzitegiak

«Iheslarien eta ETaren artean zubi lanak egitea» egotzita atxilotu zuten abokatua, Marlaskaren aginduz. Erabakiaren aurka helegitea jarriko dute **◉ 11**

Atarrabiako alkateak dio auziak ez duela «inolako funts juridikorik»

Foruzaingoan deklaratu du, ezker abertzaleko zinegotziari txupina botatzen uzteagatik. Auzia «NaBairen aurka» egiteko erabili nahi dela uste du **◉ 10**

Etorkinek bizi duten jazarpen poliziala salatu du SOS Arrazakeriak

Poliziarengandik ihesi bere burua ibaira bota zuen gazteak ez zuela lapurtu dio Ertzaintzak. Atzerritarren Legearen «ondorio larriez» gogoetatzeko eskatu du **◉ 14**

Palestinako estatua aintzat hartzearen aurka daude AEBak eta EB

Abbasen proposamena NBera eramateko «goizegi» dela dio Bruselak, eta AEBek beto eskubidea erabiliko lukete, Segurtasun Kontseilura iritsiz gero **◉ 21**

Hector Iglesias

Euskal Ikasketetan doktorea

«Arkeologiak eta laborategiko analisiak beti gaina hartuko diote filologiari»

Veleiako idazkunen benetakotasunaren aldeko artikulua argitaratu berri du

Elkarrietzeta **◉ 40**

Ezarian → Etnografia

XIX. mendean metroa eta harekin lotutako neurri bateratzaileak iritsi arte, antzinako gizartean tokian tokiko neurriak erabiltzen ziren, baita Euskal Herrian ere.

Neurriari neurri bila

Irene Lasa Donostia

Ollaranen gertatu zitzaidan, Nafarroan. Soroan lanean zebiltzan nekazari batzuekin nenbilen berriketan, eta, halako batean, ‘zer ordu ote da?’ esan nuen. Haietako batek, haitz batera begiratu, eta ‘ordu bata laurden gutxi izango dira’ erantzun zidan. Ni zur eta lur. Haitz hari Ordulariaren Haitza deitzen diote. Badu halako haitzulo bat, eta zulo hartan eguzkiak eta itzak zenbat hartzen duten, horren arabera, zein ordu den badakite nekazariak; gutxi gorabehera, jakina, baina badakite». Eguzki ordulari berezia, zalantzarik gabe.

Fermin Leizaola etnografoak hitzaldia eman zuen joan den astean, Aranzadiko Etnografiaren Astean, Euskal Herriko mundu tradizionalen neurri, marka, seinale eta sinboloei buruz. Nanometroak eta argi urteak ohiko diren garaiotan ondo dago ikustea, ulertzea, gizakiak betidanik izan duela gauzei neurria jarri beharra, metroaren konbentzioa ezarri aurretik ere. Metroa, kiloa eta gisako berekoak ez ziren iritsi XIX. mendera arte. Eta orain gutxi arte, ia inork ez zuen ordularirik.

Gipuzkoako Aldundiaren Ondare saria jaso zuen orain gutxi Leizaolak, herrialdeko ondare etnografikoa biltzen Aranzaditik erakundearekin elkarlanean egindako 30 urteko lanarengatik. Aranzadiren Urrezko Intsignia ere jaso du, elkartean 51 urtean egindako ekarpenarengatik. Kobratzeari bai, baina lanari ez dio utzi Leizaolak, ezta bere jakintza zabala partekatzeari ere. Luzera, azalera, edukiera hartu ditu oraingo honetan hizpide, Euskal Herriko bazter guztiak ezagutzen egindako lana oinarri hartuta.

Gizakiak beti izan du neurrien beharra, hala baieztatzen du Leizaolak. Historiaurreko aztarrietan, adibidez, agertu dira ustez egutegiak diren batzuk. Denbora

neurtzeko nahi horretan, egiptoarrek eguzki ordularia erabiltzen zuten orain ia 3.000 urte. Eta Euskal Herrian ere erabili izan dira orain gutxi arte. Horren erakusgarri, hainbat dorretxe eta elizak aurrealdean ikus daitezkeen eguzki ordulariak. Leizaolak, Gipuzkoan bakarrik, halako 70 zenbatu ditu. «Batzuk oso zehatzak dira, aditu batek egindakoak; eta beste eguzki ordulari batzuk, berriz, hala-moduz egindakoak direla ikusten da».

Denbora soilik ez, beste gauza mordoa ere neurtu behar zen. Eta Leizaolak azaldu duen moduan, hasieran ezaugarri antropometrikoak hartu zituen gizakiak mundua neurtzeko erreferentzia gisa: luzera neurtzeko hatzbetea erabili, oina, ukondoa, besoa...

Gizon batek egin zezakeen lana ere neurri bat izan zitekeen azalera neurtzeko: adibidez, gizalurredo gizalan batek 380 metro koardro hartzen zituen. Idi pareak egun batean goldetu zezakeena ere neurri bat zen: golde lur bat. Nafarroan, esaterako, golde lur batek bi erregulur edo bi erreneurri hartzen zituen. Erregulurra ale erreguarekin erein zitekeen eremutik zetorren. Eta Nafarroan, erregulur batek 8,98 area hartzen zituen. Gipuzkoan, berriz, goldelur bat 50 anega zen.

Nahasmena

Metrologia bateratzailea iritsi arte bai azalera, bai luzera, bai edukiera neurriak ezberdinak ziren toki guztietan. Euskal Herrian bertan, ia eskualde bakoitzean neurri ezberdina zuen kanak: Nafarroan, 0,785 metroko luzera zuen; Gipuzkoan, 0,837 hartzen zituen; eta Araban eta Bizkaian, 0,835 metro. Aragoian, berriz, 0,772 metrokoa zen.

Edukiera neurriak ere nahasgarriak izan zitezkeen. «Adibidez, Donostiako anega bat Gipuzkoakoa baino hamarren bat handiagoa zen», dio Leizaolak. Gipuzkoan, anega bat garik 48-44 kilo zituen —udako edo neguko gariaren arabera—. Anerdia, hortaz, 24 kilo zen. Haren erdia, 12 bat



→ **Pisua.** Erromatarra —goian, Fermin Leizaolaren eskuetan— erabiltzen duenik bada oraindik. Gehienek, dena den, kiloekin lotutako neurriak dituzte orain. Dinamometroak —behean ezkerrean— eta Robervalen balantzeta —behean eskuinean— pisuek agintaritzak zigitatutakoak izan behar zuten.

kilo, gaitzeru batean sartzen zen, eta azken horren laurden bat, hiru bat kilo baba, esaterako, hartzen zuen lakari batek.

Egiatzatzeko

Agintariak ziurtatzen zituzten pisuak eta neurriak. Adibidez, Robervalen balantza batean erabil-

tzeko pisuek zulo bat izaten zuten azpialdean, galdarekin lortzen ez zen pisu zehatza berunarekin batez lortzeko. Berun horren gainean ezartzen zen pisuaren zehatzasuna egiaztatzen zuen zigilua.

Beste bide bat ere bazegoen ikusteko ea zuzena zen oihal baten edo beste edozeren luzera

neurtzeko erabiltzen zen kana: herriko etxeko edo elizako atarian zizelkatutako kanaren parean jarri besterik ez zen egin behar. Bergaran, Arrasaten eta Guadian ikus daitezke halako markak, eta ez soilik kanarenak. Teila, adreilu eta harlauzen neurriak ere zizelkatu ohi ziren.

Ezarian → Etnografia

JON URBE / ARGAZKI PRESS



JON URBE / ARGAZKI PRESS



JON URBE / ARGAZKI PRESS



→ **Tailan erosten.** Neurriak ez ezik, kontatzeko moduak ere bestelakoak ziren lehen. Egurrean koskak eginez —erdian— kontatzen zituen ikazkinak ekoitzitako ikatz zaquak, eta harrian markak eginez kontatzen zituen artzainak ardiak —eskuinean—. Taila ere kontatzeko zen —ezkerrean—: saltzaileak eta geroago pagatzekotan erosten zuen bezeroak, aurrez aurre, erdibituko egur baten bi zatia batu eta koskak egiten zituzten, eta bakoitzak bere zatia gorde, gero epe jakin batean elkarrekin kontuak egiteko.

JON URBE / ARGAZKI PRESS



FERMIN LEZAOLA, 2009



→ **Edukiera.** Aleak, sagarrak, likidoak... Ontziak ziren haiei neurria hartzeko modua. Horrela, gaitzeruak —behean ezkerrean— 12 bat kilo ale hartzen zituen —edukia- ren arabera, jakina—. Lakariak —goian eskuinean— 3 kilo babarrun hartzen zituen. Eta askotan, kaxa berean baina beste aldean, lakari erdia ere neur zitekeen (almutea). Alez, azukrez edo halakoez betetzen zen kutxari arrasera pasatzen zitzaien gero, ahalik eta neurri zehatzenaren bila. Sagarrekin ere ontzia erabiltzen zen: sagarneurria. Eskuinean, Ezkio-Itsasoko baserri batean gordetzen zuten sagarneurria.

FERMIN LEZAOLA, 2009




FERMIN LEZAOLA, 2009



FERMIN LEZAOLA, 2009



FERMIN LEZAOLA, 2009



→ **Neurri nagusiak Bergarako horma batean.** Tokiko kanak zer luzera izan behar zuen? Bada, hainbat herritan, elizako horman zegoen zizelkatuta kana, nahi zuenak han egiaztatzeko zuzena zen ala ez tratuetarako erabiltzen zen kanaren neurria. Udaletxe eta herriko etxeetako hormetan ere baziren halakoak. Adibidez, Bergaran, udaletxeko horman, tokiko kana (2.) soilik ez, teilaren neurria (1.), adreiluaren neurria (3.) eta harlauzarena (4.) ikus daitezke gaur egun. Guardian, Zegaman eta Arrasaten ere gordetzen dira oraindik.